# 22. UNITATEA

# *EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN*



**PROGRAMAZIOA: 22.UNITATEA** ***EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN***

| HELBURUAK | JARDUERAK | EDUKIAK | TREBETASUNAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ENTZUM | IRAKUR | ELKAR | MINTZ | IDAZM |
| Informazio testu eta deskribapen sinpleen ideia nagusia uler dezake, batez ere testua azaltzen laguntzen duten irudiak baditu. | | Geografiako hiztegi teknikoa:<br>*Iparraldea*<br>*Hegoaldea*<br>*Mendebaldea*<br>*Ekialdea*<br><br>*Mendia*<br>*Ibaia*<br><br>Tokien izenak:<br>*Lurraldeak*<br>*Hiriak*<br>*Herriak* | | | | | |

<u>PROGRAMAZIOA:</u> <u>22.UNITATEA</u> *EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN*

1. JARDUERA

*Testua irakurri eta galderei erantzun:*






GEOGRAFIA

**Euskal Herriak** 7 lurralde ditu. Hauetako lau *Hegoalde*an, Espainiako administraziopean, eta beste hiru ipar-ekialdean, Frantziako administraziopean, *Iparralde*an.

Espainiar administrazioaren azpian daudenak:

- Araba
- Gipuzkoa
- Nafarroa
- Bizkaia

Frantziar administrazioaren azpian daudenak:

- Nafarroa Beherea
- Lapurdi
- Zuberoa

**Euskal Autonomia Erkidegoa** edo **Euskadi**

Nazionalitate historikoetako bat da. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoek osatzen dute

*(Wikipedia)*

PROGRAMAZIOA: 22.UNITATEA *EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN*

## *IPARRORRATZA*




*Iparraldea*
*Hegoaldea*
*Mendebaldea*
*Ekialdea*

### *Testuari buruzko galderei erantzun:*

1. Zenbat lurralde ditu Euskal Herriak?

_______________________________________________

2. Zenbat lurralde daude Hegoaldean? Eta zenbat Iparraldean?

_______________________________________________

3. Ze lurraldek osatzen dute Euskadi edo Euskal Autonomia Erkidegoa?

_______________________________________________

4. Iberiar penintsularen zein tokitan dago kokatuta Euskal Herria?

_______________________________________________

5. Euskal Herriko zein tokitan dago kokatuta Bizkaia?

_______________________________________________

PROGRAMAZIOA: 22.UNITATEA *EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN*

6. Euskal Herriko zein tokitan dago kokatuta Araba?

___

7. Euskal Herriko zein tokitan dago kokatuta Zuberoa?

___

## EUSKADIKO HIRIBURUAK

### 2. JARDUERA

*Testua irakurri:*

*GASTEIZ*

Arabako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua, Arabako Lautadan, probintziaren erdialdean kokatzen da eta 218.902 gasteiztarrek osatua dago. Araba osoko populazioaren %75 baino gehiago bertan bizi da. Hegoaldean Gasteizko mendiek eta iparraldean Gorbeia, Elgea eta Aizkorri mendiek mugatzen dute. Zadorra ibaiak iparraldetik mendebaldera zeharkatzen du.



Jai nagusiak San Prudentzio (apirilaren 28an) eta Ama Birjina Zuriaren ohorez (abuztuaren 5ean) ospatzen dira; azken honetako pertsonaia nagusia Zeledon da

## DONOSTIA

## EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN




| | |
|---|---|
| Herrialdea | Gipuzkoa |
| Altitudea | 5 m. |
| Biztanleak | 181.451 |
| Euskaldunak | %33 |
| Azalera | 61 km2 |
| Dentsitatea | 2.922 bizt./km2 |
| Jaiak | San Sebastian (urtarrilak 20)<br>Kaldereroak (otsaileko 1. larunbata)<br>Inauteriak<br>Aste nagusia (abuztuak 14)<br>Abuztuaren 31 (abuztuak 31)<br>Santo Tomas (abenduak 21) |

Donostia Gipuzkoako hiriburua da. Europako hiri ederrenetarikoa da.

Donostialdea eskualdean, probintziaren ipar-ekialdean dago, kostaldean eta 181.451 biztanlek osatzen dute

Urgull eta Igeldo mendien artean, Kontxako badia dago; bertan, Santa Klara uhartea eta Kontxako eta Ondarretako hondartzak daude.


*Donostia, Kontxako badia*

## BILBO

Bizkaiko hiriburua da Bilbo eta probintziaren ipar-mendebaldean, Ibaizabal-Nerbioiren bokalean kokatzen da. 358.977 biztanlek osatzen dute Bilbo eta Euskal Herriko hiririk populatu eta industrializatuena da.


*Bilbo, Nerbioi ibaiaren bokalean*

PROGRAMAZIOA: 22.UNITATEA *EUSKAL HERRIA DESKRIBATZEN*

## 3. JARDUERA

*Aurki itzazu Euskadiko hiriburuak Google Earth programaren bidez edo mapa mundi batean.*

*Galderei erantzun:*

1. Zein da hiribururik industrializatuena?

---

2. Zein da hiribururik ederrena?

---

3. Zein da Euskadiko hiriburua?

---

4. Non dago Santa Klara uhartea?

---

5. Non dago Zadorra ibaia?

---

6. Non da Nerbioi ibaia?

---

7. Zein hirik du biztanle gehien?

---

8. Zein hirik du biztanle gutxien?

---